

IRABAZI ITURRIAK

Hasierako inbertsioa 100.000€-koa izango da. Guk ordainduko diegu enpresa hauei gure produktuaren parte esberdinak egiten laguntzeko. Liftra enpresan 15.000€ gastatuko ditugu, Ingeteam-en 50.000€ eta Arbelec-ean 35.000€. Hau kontuan hartu behar da hasierako irabaziaz zor horiek ordaintzeko izango direla. Beraz, hasierako lana handiagoa izango da, ordu gehiago inbertituz. Ordainketetan laguntzeko, hainbat NOG-en laguntza izango dugu, besteak beste, ONCE, UMC eta EBU. Guztira 50.000€-ko laguntza izango dugu. Laguntza horri, gutariko bakoitzak jarritako 3000€ak, guztira 1200€, gehituko dizkiogu eta bankuari (Banco Sabadelleri) 50.000€ko mailegu bat eskatuko diogu. Diru hori 8 urtetanitzuliko dugu, hilabetero 699,23€ ordaindiz eta azkenean ordainduko duguna 68.623,44€ izango da interesak direla eta.



Diru guzti hori gure enpresa hornitzaileei ordainduko diegu, beraien langileak guretzako proiektuan lan egiteko urte oso batean, eta beraiek eukiko duten muga izango da 33 edo 34 bastoi astero egitea, hori hasieran, enpresa handitzen denean bastoi diru gehiago eta bastoi gehiago egin ahalko ditugu. Eta astero bidaltzea gure fabriketara bastoi horiek gure langileak amaitzeko. Orduan, 100.000€ko gastua izango dugu hasieran, baina salmentekin espero dugu inbertsio hori azkar berreskuratzea.

- Produktua ekoizteko hainbat gastu izango ditugu. Alde batetik materiala ordaindu behar da, kasu honetan, plastikoa (birzikilatutako plastikoa izango da ahalik eta ekologikoena izan dadin). Mangoa gomazkoa izango da eta erdiko zatia, mekanismo elektronikoa guztia duen parte, kanpotik metalezkoa izango da eta barruan hainbat kable izango ditu instalazio elektrikoa sortuz. Produzitzerako orduan plastikoak makil itxura hartu behar du, eta horretarako makina berezi bat beharko da. Gero, goma zatia gehituko zaio goiko atal osatzeko eta azkenik instalazio elektrikoa gehituko zaio. Azkenengo prozesu hau zailena eta korapilatsunea da, eta horregatik garestiena izango da. Guztia amaitzerakoan kanpoko kolorea gehituko zaio, hau bezeroak erabakiko du erosteko momentuan agertzen diren aukeren artean. Gastu totala 67,25€-ko gastua izango du, 35,12€ materialetan eta 32,13€ produzitze-prozesuan. Produktu 199,99€-ra salduko da 132,74€ko irabaziaz lortuz.